

KONPAINIA ESZENIKOAK 2026

*Eszena ikuskizunak sustatu eta saltzeko
Gipuzkoako konpainia eszenikoei
zuzendutako dirulaguntza (Antzerki eta
dantza)*

Oinarriak eta infoa



ESKATZIALEAK

Gipuzkoan egoitza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, antzerki-jardueretan alta emanda daudenak eta esperientzia egiaztatua dutenak.

KANPO GELDITZEN DIRA

- Dirulaguntza izendunaren xede direnak
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren beste laguntza-deialdi batzuetan modu egokiagoan edo esanbidez sartuta daudenak
- Ekoizpen eszenikoak modu ez-profesionalean egiten dituzten erakundeak. Horri dagokionez, ez-profesionaltzat hartuko dira obra eszenikoaren exekutatzaileekin (aktoreak, dantzariak) kontratu-harremanik ezartzen ez duten erakundeak

DIRU KOPURUA

Gehienez 21.000 €

Programa garatzeko aurreikusitako gastuen % 50 lagundu ahal izango da diruz.

Horrek esan nahi du proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren % 50 ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

AURKEZTU BEHARREKOAK

Eskaera- inprimakia bete behar da honako hau aurkeztuta:

1. Proiektuaren, programaren, azalpen-txostena edo jarduera horretarako eskatzen da dirulaguntza
2. Diru-sarreraren aurrekontu zehatza eta proiektuaren, programaren edo jardueraren gastuak (hemen ematen den eredia bete) aplikazioa)
3. Enpresa bada, Merkataritza Erregistroko inskripzio-ziurtagiria



Eskaera orria egoitza elektronikoa dago eskuragarri

ESKAERA EPEAK ETA TRAMITAZIOA

AZKEN EGUNA: 2026EKO MAIATZAREN 29A

ZURIKETA AURKEZTEKO

Aipatutako dokumentazioa aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da.

ORDAINKETAK

Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 dirulaguntza emateko ebazpenarekin batera eta %40 diruz lagundutako jarduera egin ondoren.

TRAMITAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren administrazio-egoitzaren bidez egiten da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu>)

GOMENDAGARRIA: ziurtagiri digitala lortu (B@kQ, DNle...).

BALDINTZAK

- Azken bost urteetan gutxienez 3 ikuskizun eszeniko profesional ekoitzi eta erakustea, eta deialdiaren urtean jardunean egotea, gutxienez aurreko urtean edo deialdiaren urtean ekoizitako obra batekin
- Diruz lagundutako entitateak komunikazioa eta publizitatea gutxienez euskaraz egin beharko du.
- Dirulaguntzaren xede diren jarduerak deialdiak ezartzen duen urte naturalaren barruan egin beharko dira, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean